

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Garai gogorretarako, punka eta hitz zuzenak

Donostialdeko hainbat punk beteranok Malos Tiempos taldea sortu zuten orain dela bost bat urte. Santos Inocentes, Micky Kaos eta inguru horretako beste talde askotan ibiliak dira, eta eskarmenturik gabeko Marijo batu zitzaizen izaera handiz abesteko. Irungo Defecto

Humano taldearekin erdibana diskoa kaleratu zuten, eta oraingoan disko luzea kaleratzera ausartu dira. Horren aurretik, baina, kide aldaketa batzuk egin dituzte. Taldekideen esanetan, gaur egungo garaiak lehengoak baino okerragoak dira; eta hala-koak dira kantuen hitzak. Musikari dagokionez, 80ko hamarkadako punka egiten dute, oso iluna batzuetan –Marijok Siouxiere dirudi!– eta melodikoa beste batzuetan; eta Oi!-ari ere tarteka keinu batzuk egiten dizkiete. Horrez gain, Bob Geldof eta Cock Sparrer-en bertsio bana ere grabatu dituzte.



Malos Tiempos
Malos Tiempos

PUZKARRA RECORDS / SKIZO

Iraupena: 38'07"
6 euro

MALOS TIEMPOS

«Ez diogu punkari etiketarik jarri nahi, guk sentitzen duguna espresatzen dugu»

“Hainbeste burruka egin, berriro tabernako atean”. Posible da tabernatik iraultza egitea?

Iraultza prestatzea bai, baina iraultza egiteko kalera irten beharra dago.

“Edalontzitik edalontzira, gramotik gramora bizitza igarotzen doa. Mutil, bidea protesta eginez egiten da”. Iraganekoa baino geldoagoa ikusten duzue gazteria?

Egia da zarata gutxi egiten duela, baina kontuan hartu potroetatik helduta dagoela. Leku eta modu guztietan kontrolatzen gaituzte, lehen baino gehiago: kale agerraldi batera joan eta Alcalako espetxean bukatu deza-kezu...

Diskoak ostia txarra eta gorroto handia du. Barruan gordeta eraman duzue ala zuentzako punkak halabeharrez hori behar du?

Bai, taldekide bakoitzak barruan daramanaren isla da. Ez diogu punkari etiketarik jarri nahi, guk sentitzen duguna espresatzen dugu.

Diskoaren azala gustuko dut. Hilda-koak biluzteko garai txarrak dira?

Baliteke txarrak izatea, baina

guk beti egingo dugu; ez daukagu ideiak biluzteko beldurrik.

Zer eman diote taldeari Txinarrok eta Alvarok?

Asko igarri dugu kide horiek batu izana. Inoiz baino batuago gaude, eta taldea oso sasoi onean dago. Gainera, Txinarrok asko konposatzen du.

Zelako harrera izaten duzue kontzertuetan?

Gogo handiarekin gabiltza, eta oraindik bide asko daukagu egiteko. Kantu berriak egin ditugu, eta luzaroan jotzen jarraitzea nahiko genuke. Egiten ditugun kontzertu guztiak gozatu egiten ditugu, eta entzuleekin konektatu egiten dugu.

Nola bizi duzue batez ere Gipuzkoan bizi den punkaren eta Oi!-aren berpizkundera?

Izugarria da, eta ondo legoke luze irautea. Talde eta kontzertu gehiago daude, eta horrek musika eskaintzaren aberastasun handia dakar.

Kreamilerak kateorrazak baino gutxiago erabili ohi dira irudi moduan?

Guretzat punkak ez dauka estetika, baina elementu horiek arropa birziklatzeko bidea eman dute.

